

Gerrateko nere amabi kantak (*)

(Bederatzi idilio, romanze bi ta imno bat)

Lekuona'tar Manuel Apaizak

I

MAITE-IZKETAK

Soror Pilar, Nobizien Maistrari.

Komentu-ederra zan.
Eta Komentuan
lore-baratz polita
—arkuk inguruan—.
Baratzatxo artantxe,
udan naiz neguan,
monja batek sarritan
paseatzen zuan.

.....
Larrosa sortu-berri
larrosen artean;
aurtxo txiki polita
monjen baratzean.
Monjatxo ark ikusi,
ta pake ederrean
(bañan biotza, *tauþa!*)

salta bearrean):
—Zer zabilta, mutiltxo?...
(Ta aurrak juxtu-juxtu:)
—Larros-biltzen. —Zeñentzat?
—Amatxok nai ditu.
—Nun da, ba, ama?—Zeruan.
—Ta aitatzu nun dezu?
—Zeruan aitatzu're.
—Esan, ta nola du
izena amak? —Maria.
—Eta zuk, eta zuk?
(Aurtxoak parrez-parrez:)
—Eta xuk, eta xuk?
—Nik, Jesus'en Teresa...
(Ta Aurrak, maltxur-maltxur:)
—Nik ba... (parrez ortz-txuri:)
Te-re-sa-ren Je...xux.

(*) IRAKURLE: Nere amabi kanta oek, gerratekoak diran arren, ez dira gerrako kantak, pakeskoak baizik. Gerratean egin nituan, eta orregatik deritzoet «Gerrateko Kantak». Bañan gañerakoan ez dizute polbora-usairik. Ez dira gerrako atabal-ots, ez gerrako turuta-soñu ere. Belen'go ta Nazaret'eko pake ederraren oiartzun dira.

Lasarte'n egiñak dituzu. Lasarte'ko Komentuan. Beragatik azaltzen da kanta bakoitza Lasarte'ko monjaren baten izenari loturik.

I I

AMA BIRJIÑA TA GEMMA GALGANI

Soror Maria de Jesus'i †

Birjiña agertu zaio
 Gemma Galgani'ri.
 Birjiña alkian; Gemma
 lurrean exeri
 ta izketan ari dira.
 Maria'k Gemmari
 onela dio: —Gemma:
 zure Ama izanik
 ni baño geiago iñor
 zuk maite? —Gezurrik
 ez diot esan, Ama.
 —Eztezu lotsarik?
 —Lotsa... Baña Amarentzat
 ezer sekreturik
 euki bear eztala
 entzun bait-dizut nik
 askotan... —Ai pikara!
 —Eztezu oraindik
 danaren berri, Ama.
 Bada bazeneki
 gizezko bat dala
 nere maite ori?...
 —Ene! zer esan dezu?
 gizezko bati
 eman bere biotza
 nere Gemma'k? —Zazpi
 banitu ere, danak
 ark lituzke aurki.
 —Burutik egin zaizu?

—Burutik ez dakit
 egin zaidan, bañan bai,
 ta asko biotzetik.

 —Ta jakin al diteke
 orren zoraturik
 zaduzkan ori nor dan?
 ezaguna al det nik?
 —Bai, arren! —Aundi al-da?
 —Zu ainbat. —Ta lodi?
 —Zu ainbat. —Eta eder?
 —Eder, zoragarri.
 —Begiak? —Zuk bezela
 urdin. —Sudur? —Polit.
 Ta gañerako dana,
 asi oñetatik
 eta illetaraño,
 ñana zure berdin...
 —Gazte? —Ogeitamairu.

 Eta Maria'ri
 Jesus zaio gogora...
 ta ixil ta gogarti
 gelditu da... Gemmatxo'k
 par-begiak *ñir-ñir*:
 —Ezin asma?... tira ba,
 «Ikusi-makusi»
 egin dezagun biok
 bertan. «—Zer ikusi?»

«—Ikusten det ikus... *Je*
ta buka *esekin*».

—*Jesus* ez da ba izango?

—*Jesus* ez? zergatik?

(Ta irri-parra jario
Gemma'k ezpañetik).

—Ai pikara, Gemmatxo!
ai pikara txiki!

—Asarre al-zera, Ama?

—Ez Jainkoagatik!

Bañan, esazu, zeñek
dio erakutsi

bromak ematen ola
nere Gemmatxo'ri?

—Nork erakutsi, didan?

Galdetu *Jesus*'i.

—*Jesus*'i, beraz?... *Jesus*
eta zu... a zer bi!!

.....

Au esan eta biok,
par-irri, par-irri,
begi-zear begira
gelditu alkarri.

.....

Jardunaren ondotik
biok ixil-aldi...
Kalean bei-gurdi bat
kirrin-kurrinkari.

1938-Agorra-2.

I I I

AITA SAN ANTONIO'REN MIRARI BAT

Soror San Antonio'ri.

San Antonio jun zan

bein batez Prantzira

—Padua'tikan ara
ordu asko dira—.

Jun-da-jun bide luzez

biziro nekatu;

ta askok eskiñi zion

gaberako ostatu.

Ba'zan antxe eskeintzale

aberats ta aundizki!

—bakoitzaren berriak
Santuak dakizki—.

Azkenik jo du Zaldun

zintzo batengana;

ta arek aukeran jarri

dio etxe dana.

Lo gabe, oititzean
pasa nai gau dena,
ta Santuak autu du
gelarik gordena.

Ta apal-ondoan junik
ixil eta umilla
atetxoari eman
dio maratilla.

Otoitzetan astean,
argitu da gela
—zirriztutik argia
egunez bezela—.

Eguzki eta izar
guztiok batean
etzezateken argi
ain argi-betean.

Gaberdia zan, eta
etxe dana lotan;
bañan zalduna etzan
alako asmotan.

Gela-inguruan dabil
nun zer ikusiko
Santuak etzulako
ezer igarriko.

Ate-ondora ixilik
etorri zanean,
ta txuloan begia
jarri zuanean,
—ikusit zituanak
alakoak izan—
arriturik zearo
ia erori zan.

...Lengo gela ote-zan
ikusten zegona?
ala zerua bera
ta ango zoriona?

Arritzekoa zan, bai,
uraxe benetan...
... Santuari Aurtxo bat
musu-laztanetan.

Nolako Aurra baña!
Marrubi gorria
esnetan urtu-berril
Mami-uts guria!

Mingaintxo izketan
trebatu gabea;
bañan musu ematen
bai mutil trebea!...

Santuari lepotik
zintzilik jarrita
—librutzar bat oñetan—
ain zegon polita!...

Esku txikitxuakin
txaplá bat musuan;
gero maiteki, berriz,
pa begi-onduan...

San Antonio'k zeukan
maitez ler-bearra!
Begotik *mara-mara*
pozezko negarra...

Laztandu nai Aurra, ta
malkoz bustitzen du;
Aurrak malko bakoitza
eskutxoaz kendu...

.....

Aurra nor zan Zaldunak
azkar zun igarri;
ain polita ikusita
nola dudan jarri?

Bijiñaren Semea
bear, bada, izan...
Aren antz-antzekoan
an zegon Elizan.

Eta ixil-ixilik
ta geiago gabe,
lotara jun da; bañan
ez bait-da logale.

Nola login, ikusi
duana ikusita,
Santuaren besoan
ain Aurtxo polita?...

Artan eguna argitu,
eta Santuari
«egun on» emateko
bildur eta larri...

—«Ai gizon, gizontxoal
guztiaren berri
nik ez dedalakoan...
Dana det igarri».

«Bañan penitentzian
agintzen dizut nik
iñun ez esateko
ikusit dezunik.

Esaten ez badezu,
nik, dana barkatu,

ta ondo ordainduko det
gaur emengo ostatu».

Etzan ordun asarre
gure Zaldun ona;
ezta ark esan iñori
gerta zitzaiona.

Bañan Santua gero
zerura zanean,
bai ark banatu azkar
mundu zabalean.

Ordutik ikusten da
gure aldaretan
Santua, Jesus Aurra
bere besoetan,
amatxo bat bezela
maite-berriketan
ta Aurtxo Santuari
musu-laztanetan.

.....

Orra bertan kantatu
kanta berrietan
Santuaren mirari
polita benetan.

Eskatzen badiogu
gogoz otoitzetan,
berak sartuko gaitu
gero zeruetan.

1938.—San Agustin egunean.

I V

AMA-SUSMOAK (1)

Soror Santa Maria Magdalena, jostunari

Maria Birjiña
 nexka zanean,
 goizean lan, eta
 arratsaldean
 jostera juten zan;
 eta bidean,
 bear bada igaro
 larros-artean,
 ta larros-artetik
 igarotzean,
 tximeletatxoak
 (zazpi batean)
 egatzen zioten
 buru-gañean,
pinpirin-pinpirin,
 koroi-antzean.

.....
 Bein, jostundegira
 eldu zanean,
 ta (bastidorea
 belaun-gañean)
txisti eta *txasta*
 asi lanean,
 asi bezain laister,
 une berean,
 malkotxo bi zeuzkan

begi-ertzean.
 Eta maixtrak, zer zun
 jakin naiean,
 —«Zer dezu, maitea?»
 galde egitean,
 berak ere etzekin
 zèr zitekean...
 ...muestratzako zeukan
 markadorean,
 len letrak bezela,
 letra-ordean,
 Gurutze bat orain...
 ...ta Gurutzean
 Jesus odoldua...
 Ta ura ikustean,
 Maritxo gaxoa
 (ezin bestean)
 negarrez zegoan
 negar batean...
 Ta bera negarrez
 dagon artean,
 aingeruak, aren
 bastidorean
 (*txisti* eta *txasta*
 eten-gabean)
 seda fin-fin morez

(1) Katalunia'ko *La Mare de Deu*'ren antzera.

jardun lanean	(zazpi batean)
Gurutz bat bordatzen;	egaka nexkaren
ta Gurutzean	buru-gañean...
Jesus, more-more,	Ta jun-zijoala
illotz-antzean.	bere bidean,
.....	etzekin gaxoak
Jostundetik gero	zer zezakean...
etxeratzean,	...Malkotxo bi zeuzkan
ta larros-artetik	begi-ertzean...
igarotzean,	eta min goxo bat...
tximeletatxoak	an...biotzean.

1938.—Sta. Klara egunean.

V

AMETSETAN

Soror Asunción tornerari.

Abendua. Gabonak.	tornura dijua.
Negua, negua...
Elurra zan Lasarte'n.	— <i>Deo gratias</i> . Gabon!
Komentu-ondua	—Jaunak eman beigu.
ixillik, iñor gabe...	—Nor da? —Aguretxo bat.
Gaua, gau itxua...	—Zer nai du?— Ostatu.
Epel ta argi, orratik,	—Ostatu Komentuan?
Komentu-barrua.	—Otz zan-da... barkatu!
Monjak apaltzen ari	...eta Aurtxoa negarrez...
—konpota berua—	—Aurra? Jesus, Jesus!
Ontan <i>txilin!</i> ...atean	—...ta Emaztea, berriz...
txintzarri-soñua...	—Bañan eztakizu
Tornera <i>xiri-xarà</i> ,	klausuradun gerala?

Guk ezteza kegu
 artu etxean inor
 ekartzen ezpadu
 Aita Santuagandik
 baimenik... —(Biurtu
 Emaztearengana,
 eta:) Aitu dezu,
 Maria, zer dioten...
 —Josepe, ez estutu.
 Belen'en ere berdin
 zitzaigun gertatu.

.....

Tornerak «Maria» ta
 «Jose» aditzean,
 «Jesus!» esanaz jun da
 antxintxi batean
 Amagana. Ene ba!
 Tornuko atean
 etzekila zein zegoñ,
 eta ixtanpatean
 etor zedilla bera...
 Bidea betean
 etorri zan bada Ama;
 ta... Zer zitekean
 ura? giltza-txuloko
 argi-dizdizean
 trantzitu dana argitan
 zegoñ... Portalean
 zer edo zer mirari
 bazan aidanean...
 Ta geiagorik gabe
 —ezin egonean—
kris-kras, zabal atea...
 ta ate zabalean...

.....

Jesus, Maria, Jose,

Santa Ana, San Joakin
 —bostak orain-da beti
 dirala gurekin—...
 Ene ba! zer zan ura!
 Nun zegoñ etzekin.
 Famili Santu dana.
 astotxoarekin
 ostatu-billa... Jesus!
 Ene ba! zer egin?]
 Astoak erantzuna
 or dakar berekin:
traka-traka barrura
 Jesus ta Amarekin
 —alboetatik Jose,
 Ana eta Joakin—...
 Monjak maitetik jeiki
 alako pestakin
 ta pandereta joaz
 kantuari ekin.

.....

Prozesio ederra
 or sortu bertatik!
 Monjetan gazteenak
 astoa sokatik;
 zarrena—Ama Santa Krutz—
 serio ertzetik
 astotxoari elduz
 kontuz isatsetik;
 koitadea Tornera
 negarrez atzetik;
 kanta batetik eta
 kantua bestetik,
 Abadesa kantari
 guztion aurretik;
 Ama Birjiña pozez
 astotxo-gañetik;

parra jario Aurrak
ezpaintxo-artetik;
Ana ta Joakin ere
kontentuz poz-pozik;
Tornera kotsolatzten
San Jose albotik.

.....

Elizara dijoaz
guztiok batean;
eta danok kantari
Elizan sartzean,
aingeruak korutik
—doñu ederrean—

Gloria in excelsis

Belen'go antzean.

Ordun monjak ixildu,

eta ixill-unean

aldarera begira

para diranean,

ene! santu bakar bat

ere ez Aldarean...

Nork ostu-ote-zitun

apari-artean?

—lenago beintzat bostak

antxe bait-zeudean,

Jesus, Maria, Jose

ta aiekin batean

Santa Ana ta San Joakin

aldare-betea...—

Aiek ostu zituna

zein ote-zeikean?...

Monjak orla pentsatzen
ari diranean,
prozesioko bostak
or, ixtanpatean,
—bat nitxo batean ta
bestea bestean—
nun bostak, banan, banan
ezartzen direan
len zeuden bezelaxe
ta leku berean;
len aldarean zeuden
berak bait-zirean...

.....

Astoa gelditu zan

tranzerik estuan,

nora jun etzekilla,

presbiteriuan;

aldarean nitxorik

arek ezpaitzuan.

Eta oraindik bertan

jarraituko zuan,

Kristobal-i deituta

Uixtin'go ikulluan

ezpalute izan sartu

nai-ta-ezpazuan.

.....

Ikusi nuan jutien;

negarrez zijuan...

matrallean malko bi

ageri zituan.

V I

BELENGO TXORIA (1)

Soror Purificación bordatzalleari

Lili-lore, lili-lore,
 lili-lore txuria;
lili-lore, lili-lore
 lore txuri-gorria...

Orlaxe kantatzen zuan
 Belen'go estalpean
 baztarreko saratsetik
 Pazku-arratsaldean
 negu-txori gaxo batek
 doñu goxo tristean,
 Jesus Aurra Amak besoan
 lotan zeukan artean.

Junak ziran artzaitxoak,
 artzaiak eta ardiak;
 aiekin jun ziran baita
 artzai-soñu garbiak.
 Ixillik zegon Belen'go
 ingurumai guztia;
 bera bakarrik kantari
 saratseko txoria:

Lili-lore, lili-lore
 lili-lore txuria;

lili-lore, lili-lore
 lore txuri-gorria...

.....

Askotan egon naiz, Jesus,
 nerekin pentsaketan,
 orduan ezik gaur ere
 Elizik geienetan
 orixen gertatzen dala
 jai-arratsaldeetan...
 Bezperak bukatuzkero,
 gazteak billeretan,
 ta andreak jokuan, eta
 gizonak tabernetan;
 ta bitartean bakarrik
 Zu Sagrarioetan...

.....

Ail! ni izan al-baninteko
 Sagrarioko txori,
 geldi gabe jarduteko
 jai eta aste kantari,
 jai eta aste, gure maitez,
 bakarrik zauden orri!

(1) Mosen J. Verdaguer'en *Flor de Ileri* bezelatsu.

Kantari, bai, geldi gabe,
Jesus maitagarria,
saratseko txoriaren
kanta gozo berria:

Lili-lore, lili-lore
lili-lore txuria;
lili-lore, lili-lore
lore txuri-gorria...

1938, Santa Teresatxo egunean

V I I

JESUS AURRAREN SEASKA

Ama Santa Cecilia, Abadesari.

Nazaret'en etxe bat...
bean lantegia,
goian etxe-bizitza
txukun ta garbia
—garbia izan bear ba,
izanik Maria
angoxe etxeko-andre
maratz eta argia—...
Lantegia, arotzena;
Jose nagusia.
Jesus-umetxo oraindik,
txutik ikasia,
izketan ere zerbait
til-tal-tal asia
(zoragarririk ba-zan
bai zoragarria!)—
orain goian zan; urren
—ainguru txikia—
bean, txirbil-artean
estalirik ia...

Jose, seaskatxo bat
egiten Jesus'i...
Zurak markatu ditu,
ta olak ebaki...
Oraintxe *kiski-kaska*
armatu egoki,
t'egun pare bat barru
antxen bai poliki
etzango zala Jesus!...
—len zeukana, txiki
egin bait-zitzaion, ta
ezin ondo kabi —...

.....
Amaikak dira... «—Jose!
amaiketakoa
aterata daukazu
maian. —Bai, ba'noa...».
Ta, arotz-maian utziririk
trentxa ta mazoia,
Jose, asti-astiro,

gorantza dijoa...
 ... Ixillik lantegira,
 berriz, Mutiltxoak...
 .. Seaska berria nai
 ikusi?... Gaxoa!!
 Ala dirudi... Artu
 besoan oltxoak
 —ez danak; bi bakarrik
 (biak aunditxoak)—
 eta txokora jun da,
 parrez ezpaintxoak.

.....

Jesus gogoan eta
 Jesus ezañean,
 Josepe ta Maria
 goian jardunean
 —Jose'k katillu-salda
 mai garbi gañean—:
 —Nun ote-da?... —Jesustxo!
 Jesus!! —Aidanean
 bean, txirbillak biltzen
 dabil jolasean.
 Laister ikusiko det.
 —Ni ere, arean,
 ara nua, pixka bat
 otordu-aurrean,
 saiotxo bat egiñaz
purran ardatzean...

.....

Biok bean... Ene bal
 An baztar batean

ol bi gurutzeka, ta
 aietxen gañean,
 seaskan bezelaxe
 zear-etzanean
 Jesus —bildotxa iduri—
 lo bete-betea...
 ...Negarrez geldi da Ama,
 Aurra an ikustean...

.....

—Orixe ere ba'da, bal
 etorri ta joan,
 beti bere Gurutze
 maitea gogoan...
 —Gurutzea, gurutze;
 beintzat oraingoan
 gurutze ez, seaska da
 gaxoaren loan.
 —Bai, Jose; gaur seaska
 lo gozo-gozoan;
 bigar?... urkabe latza
 ai! Kalbarioan...

.....

Ta Amari, bat-batean,
 eztarria estu...
 Jose'ri, berriz, ixil,
 begiak lausotu.

Ta biok Aurtxoari
 gelditu begira...
 Jose'ri bizarretan
 malko bik dizdira.

V I I I

JESUS'EN SOÑEKOA

Erat auten tunica inconsutilis... (Joan. XIX, 23).

Soror Anunciacion rizatzaileari

Firun-firun ardatza;
astean-astean mataza,
illean-illean pieza...
Orra gure Printzesa.

Printzesa, bai, Printzesa;
Printzesa ta Erregiña
Ama Maria Birjiña
—eskuan liñai ariña —.

Firun-firun aria,
ardatz-jokuan Maria:
ariz, miesa txuria,
miesez jantzi berria
Semearentzat josia.

Josia, ez; igoa,
dan-dana euntegikoa
Amak eragiñikoa:
Soñeko Jantzi osoa,
liñuzko gozo-gozoa.

—«Nere Semetxo panpiña!
Amatxok jantzi urdiña;
Zuk, berriz, txuri pin-piña,
nere mutiltxo panpiña».

—Nun da gaur zure Semea,
Ama Birjiña maitea?
Bizirik arki nai ba-dezu,
azkar etorri zaitea.

Golgotarako bidean
ikusi degu goizean
—jantzi osoa soñean—
Gurutzea bizkarrean,
oso joera txarrean.

.....

Amabitan Gurutzean
dana billuts-billutsean;
eta Gurutze-õnean
soldadu-zar bi zotz-egiten
jantzia noren zeikean.

.....

—«Liñuzko Jantzi panpiña,
ez ortarako egiña!...
Jesus billutsik egon-da, nola
jantziko det nik urdiña?
Beltzak obeto ageriko du
nere lutuaren miña».

1938, Agorreko

Ama Naigabetuaren egunean.

.....

I X

TILIN-TALAN, MONJA ON BAT ZER DAN

Soror Maria Loreto'ri †

Bakar-zale bat bizi
 zan basa-mortuan;
 zarra, bizar-zuria;
 urterik askuan
 bere bizitegia
 ark antxe bait-zuan.
 Alako Santu-otsa
 zeukan inguruan,
 mutil gazte bat eldu
 zitzaion beinguan
 galdetzera, Jaunaren
 morroitza zintzuan
 bizi izateko, nola
 bizi bear zuan.

Zarra, saski-egiten
 ari zan orduan
 oi bezela, ta astiro
 pentsatu-onduan,
 itz oietxek bakarrik
 erantzun zituan:
 —«Morroi ona, langille.
 Morroi jatorrak,lan...
 Orra morroi zintzoa
 izatea zer dan.
 Bañan alderik asko
 ba'zegok gai ontan
 negusien aldetik;
 ta aundia benetan...

... Zertan dagon, ba, aldea?
 Entzun; orra zertan:

Kaxkarraren morroiak
 beti dik *lan-ta-lan*;
 nagusi onarenak
 dik, berriz, *jan-ta-lan*;
 ta Goiko Jaunarenak...».

Bañan une artan
 Ermitako kanpaiak
 jo zun *tilin-talan*...

Ta aiton zarrak orduan:
 —«Seme: orra, bertan,
 ik jakin nai dekana
 kanpai zarrak esan:
 «Jainkoaren morroitza
 beti *ti-lin-ta-lan*»...

Tilin ba'dakik zer dan,
 Eliza; ta *talan*,
 bera zegok esaten...
 Beraz «Eliz ta lan»
 dek Jaunaren morroitza
 bizitz labur ontan;
 eta gero nagusi
 beti zeruetan».

Au esan-da, aiton zarra
 laister zan Ermitan.
 Ez bakarrik... gaztea
 aren atzetik zan.

Geroztik da esana:
«Jaunaren morroitza,
lana ta otoitza»;

edo-ta, berdin dana:
«Monja ona zer dan?
Tilin eta talan».

1938, San Joakin egunean.

X

LASARTE'KO ANDRE MARIA'REN KANTAK

(Ondarroa'ko *Bieta Santa Klara* bezela)

Soror Ssmo. Sacramento Sakristanari.

Erdaldunen *Consuelo*,
euskaldunen «Poza»;
Ama, Zuk pozten dezu
kristauen biotza...
Erdaldunen *Consuelo*,
euskaldunen «Poza».

«Pozaren Ama» zera
kristau guztientzat,
bai, bañan batez ere
nigabedunentzat...
«Pozaren Ama» zera
kristau guztientzat.

Jaunak egin zinduan
guztion «pozkarri»,
ta Berak Lasarte'ko
Komentuan jarri...

Jaunak egin zinduan
guztion «pozkarri».

Komentua, Komentu
Monja Birjitena,
Migel Okendo zanak
ezarri ziena...
Komentua etab.

Amabi aur izanik,
bost sartu brijida;
aiantzat Komentua
egiten asi da...

Aiantzat Komentua
ta baratz-bazterra;
Birjiñarentzat, berriz,
Eliz bat, ederra...

Komentuan alabak
Birjiñan mirabe;
Birjiña Elizatik
biotz danen jabe...

Lasarte! bai Lasarte!
zure zorional
Jaungoikoak besteri
opa ez diona.

Naigabedunen Poza,
pozaren iturri
bein batez zúgana zan
zerutik etorri.

Iturri miraritsu
agortzen ez dana;
mesedez bete bait-du
ingurua, dana.

Amatasunak beti
dakartzin nekeak
arintzea gogo du,
besterik bestek.

Ontan egin dituan
mirari ederrak
beterik daduzkate
Gipuzko-bazterrak.

Ontan egiñak eta
gañera itxasoan...
sonatuak bait-dira
lurbira osoan.

Okendo'k, bizi balitz
esango lukena
ez bait-litzake izango
danetan azkena.

Kantabri'ko Eskuadra
osoa berekin,
itxasoz Kadiz'era
bideari ekin.

Etsaiak billa nai, ta
ekaitza topatu;
ekaitzak ontzi danak
dizkio banatu.

Banatu, bai, banatu
ta danak ondatu;
ontzi bakar bat ere
ez bait-zan geratu.

Ekaitzaren portitza
itxas zabalean!
trumoi, tximist, olatu
ta aizea, nastean.

Ontzien garraskada,
gizonen garrasi...
«Ito-bear au zeñek
lezaken galazi...».

Galazi lezakena
nor dan ba'dakigu:
«Pozaren Ama onal
lagun zakizkigu!».

Okendo bera zegon
ontzi Kapitana,
antxe zendun aldare,
Zuk, Ama laztana.

Aldaretik artu ta
Okendo'k eskuan
ekaitzaren aurrera
eraman zinduan.

... Itxasoak Izarra
zeruan ikusi;
urak baretu eta
ekaitzak igesi.

Ontzirik an geienak
ordurako ondora;
ta Ontzi Kapitanak
oraindik boga.

Boga; bañan ark ere
ondora-bearra:
«Ekaitza jun dek, eta
askatu gabarra».

Bosteun mariñel gaxok
—Okendo nagusi—
gabarretan bizirik
ekaitzari igesi.

Okendo'k Birjiñari
bertatikan ziña
Ermita bat Lasarte'n
sillarez egiña.

Sillarez egiña, ta
zillarrez apaña;
Birjiñak Okendo'ri
urrez dio ordaña.

Ordañaren ederra!
Lasarte'n betiko
poz-iturri garbi bat
diola jarriko.

.....
Orain esango degu,
asieratikan
egin izan zenduna
Brasil-Amerikan.

Bere etxean zindukan
soldado batek Zu;
lenengo miraria
antxen egin dezu.

Txukun jarrita zeunden
zure aldarean
olandres erejeak
sartu ziranean.

Erejeak gorroto
Jaunaren Amari;
Jaunaren Ama, sortzez
garbia danari.

Ez al-zaituzte ikusi
eder aldarean,
biotza amorrus bete
zaie bat-batean.

Itsu-mustuan artu
ezpata zorrotza,
ta batek jaurti dizu
zartada bikoitza.

Itxu-mustuan Zuri
zartada bikoitza?
Iru baño len bera
lurrean ill-otza.

Zeruko Aingeruen
asarre gorria
ikus zindutenean
auspez eroria!

Auspez eroria, ta
zati bi egiña
zeruen zeru eta
lurren Erregiña.

Aingeruen asarrez
il ziran guztiak
defendi ezpalitu
goiko errukiak.

Birjiñaren erruki
aundi ta minberal
etsaiak ere maite
ditu, gu bezela...

Lurretikan jasorik
berriz aldarera,
andikan laister ziñan
Santander-aldera.

Santander'en Okendo'k
izeba, egonez;
soldaduak Zu ari
eman esker-onez.

Izebak illobari,
berriz, maitarrean,
laguntzalle izan zezan
itxas-asarrean.

Itxas-asarrean,ta
naigabe danetan;
laguntzalle izan zezan
naigabe danetan.

.....

Naigabeak naigabe,
baztar guztietan;
guk poza kanta degu
bertso berrietan.

Guk poza kanta degu
bertso berrietan,
berri -on izan dedin
Euskal-errietan.

Berri-on dezagun, bai,
gaur, bigar, an t'emen!
Ala gerta dedilla!
VIVAT IESUS! AMEN.

X I

SANTA BRIGIDAREN KANTAK

Soror Piedad bertsolariari

«—Uso zuri ederra,
zeruan zer berri?
—Zeruan berri onak
orain eta beti».

.....
Euskeraz «Dizdizari»,
inglesez «Brigitta»,
izar argi zaitugu
zeruan jarrita.

Ipar Suezia'ko
Finsta'n jaio ziñan;
erregezkoen ume,
Printzesa izan ziñan.

Birger ta Ingerborga'k
sei ume zituzten;
seiretan boskarrena
zu izan zinduzten.

Gazteena etziñan,
bai aren urrena,
jaio baño len Jaunak
autu zinduen.

«Jaioko zaitzun aurrak
anparatu zaitu;
uretan galdu ziñan
ezpazindu zaitu».

Txikia zera, txiki,
Brigitta maitea;
bañan azkarra dezu
lanean jitea.

Biotzean arturik
Jesus'en Nekeak,
negarez juten zaitzit
ordu ta epeak.

Ama il zaigunean,
izebak etxera;
bi aizpok izebaren
kutuntxoak gera.

Bordatzean bordatzen
lanik lan fiñean,
Birjiña nuan lagun
nik ez nekinean.

Gerran aita adixkide
egin bi anairen;
bi aizpok, esan gabe,
egin gatu aien.

Poz-pozik aizpatxoa;
ni ixillik negarrez;
ezkondu izan nintzan
obedi bearrez.

Ulfo'k ogei urte, ta
nik amairu nitun;
biok ogeitazortzi
egin bait-genitun.

Ulfassa-gazteluko
Etxeko-andrea,
ez nintzan andrè aundi;
bai pobre-zalea.

Egunean amabi
nitun janaritzen;
ostegunean oñak
nizkien garbitzen.

Geuron maian zillarrez
guk ur otza aora;
ardo onak besterentzat,
otoitza gogora.

Zortzi seme-alaba
Jainkoak emanik,
zortzirak zerurako
azi nituan nik.

Danok nituan maite;
Katalin maitena,
amaren pausu danak
jarrai zituena.

Jesus'en maitatzalle
zintzua Katalin,
gaur Santa da zeruan
bere amarekin.

Munduko gora-berak
asperturik Ulfo,
zeru-nai bizi batek
biotzean du jo.

Erromes Galezira
biok erabaki;
zenbat neke eramanaz
Jaunkoikoak daki.

Andik etxerakoan
gaxorik senarra;
nik nuan orduantxe
begian negarra.

«Min-aldi ontatixik
sendako baziña,
zu praile ta ni monja
Jainkoari ziña».

Sendatu zan sendatu,
baita bete ere itza;
Albastra-Komentuan
senarra zait giltza.

Andik laister, il-berri;
min zuan biotzak;
bañan miñik miñena
gozatu otoitzak.

Senarra il ta alargun
nengoan munduan;
zeruko argi biziz
Jaunak jo ninduan.

.....

—Izar argi ederra,
zeruan zer berri?
—Zeruan berri onak
orain eta beti.

.....
Alargunak gogoa
zeruan bakarrik;
gorago etziteken
goi artan izarrik.

Izarra izar zeruan,
munduan argia;
Brigitta, jakintzaren
iturri garbia.

Jakintzaren aundia
andrezko batentzat!
Maistra billa zinduten
Erregiñarentzat.

Maistra billa zinduten
Erregiñarentzat;
bai Kontsejalle ere
Erregearentzat.

Kontsejuaren latza
eman zenduana!
Erregerik ez dezu
geiago zugana.

«Fedea aitzaki eta
gerra nai auzoai
Jaungoikoak iñundik
ez du gerrarik nai».

Albastra'tik irten naiz,
Albastra'ra noa;
angoxe Komentuan
daukat nik gogoa.

Gogoa gogo eta
nere eginkizuna;
emendik otoitz eta
ortik laztasuna.

Ta ikuskai arrigarri
otoitzaz batean:
animen sartuera
zeruko atean.

Asmorik ederrena
orduan du artu:
Brigitta'ren Ordena
bear zala sortu.

Komenturako lurrik
aukerakoena
Suezia guztian
an zegon Vadstena.

Bañan Erroma'n ere
ba'zegon zer egin;
ta Jaunaren aginduz
bideari ekin.

Erroma'ko Artzaiak
Erroma'tik urrun;
Erroma'ko Eliza
arkitzen da alargun.

Alargun, bai, alargun,
negarrez gau t'egun:
«Oker ori zuzentzen
Nik zerutik lagun».

Brigitta Amaren esku
leun eta labana!
zuk lortu dezu, askok
lortu etzuana.

Zaldiz Aita Santua
Erroma'n sartzean,
ba'zan jenderik asko
Lateran-kalean.

Erroma'n zaude egotez,
Suezia'n gogoz,
zure seme-alabak
danok an bait-dagoz

Bañan besteak beste,
Katalin gaxoa,
Jainkoaren aginduz
amagana doa.

Brigitta'k artu zuan
poz eta atsegiña!
Bañan atsegin danak
ondoan du miña.

—«Ederregia zera,
alaba maitea;
Artz asko da Erroma'n,
ezkuta zaitea.

—«Artzak, ama maitea,
ez naute bildurtzen;
senarragandik urrun
bizi naiz penatzen.

—«Senarra zeruan da,
alaba maitea;
ez egon, ba, penatzen;
kontsola zaitea.

—«Zeruan baldin- ba-da,
ez nago penatzen;
artzak, ama maitea,
naute, bai, bildurtzen.

—«Jaunaren nai ederra
onetsi dezagun;
artzak eta basauntzak
gaur dituzu lagun».

Erromes dabillanak
Jerusalen'a nai;
ama ta laba, biak,
an dijoaz alai.

Alai, alde batetik;
bestetik negarrez;
Jesus'en pausu latzak
gorora bearrez.

Oraintxe *Nunc dimittis*
kantako det, Jauna;
eraman nentzakezu
noiz-nai zuregana.

Ikusi det Nazaret,
 ikusi det Belen;
 batez ere ikusi det
 ikus Jerusalem.

Ez det ikustekorik
 geiago munduan;
 sar nentzakezu noiz-nai
 betiko zeruan.

Erroma'n izan gendun
 azken-partiera:
 —Banua, enetxuok,
 zeru ederrera.

—Agur danoi; Jainkoak
 gorde bizaitzate.
 —Agur, ama, betiko...
 —Agur, gero arte.

Dilin-dalan kanpaiak...
 —Norentzat, norentzat?
 —Brigitta, Suezi'ko
 Printzipesarentzat.

Dilin-dalan kanpaiak...
 —Norentzat, norentzat?
 —Printzipesa ta Santa
 Brigitta Amarentzat.

Testamentu egin du:
 eskutik eskura
 gorputza alabentzako,
 anima zerura.

Kanpaiak *dilin-dalan*...
 Vadstena-bidean
 Brigitta'ren gorputza
 ontzi galantean.

Kanpaiak *dilin-dalan*
 zeruko atean...
 Brigitta'ren anima
 betiko pakean.

.....

—Aingeru maite ederra,
 zeruan zer berri?
 —Zeruan berri onak
 len, orain ta beti;
 zeruan berri onak
 gaur, bigar ta etzi.

1938, n. Bartoleme egunean

X I I

LASARTE'KO AMARI

Soror Visitación kantariari.

Naigabedun pozal
 Pozaren iturri!
 Lasarte'ra ziñan Zu
 zerutik etorri.
 Naigabez gatozkizu
 pozaren egarri;
 eman zaiguzu, Ama,
 ur ortatik sarri.

Itxasorik itxaso
 ontzi galantetan,
 Amerikan ibilli,
 gañera Flandetan;
 bañan, gure Uso Txuri
 bait-ziñan benetan,
 gaur zure kabi dezu
 gure biotzetan.

Naigabedunen...

«Noe'ren Kutxako Uso
 poz-ekarle txuri»
 esker-onez Elizak
 deitzen dizu Zuri.
 Negarrik ez dezaten
 biotzak ixuri,
 eman, Ama, pixka bat
 poz ortatik guri.

Naigabedunen..

Itxasoz, naiz legorrez,
 gau dala, naiz egun,

naigabetan dagonak
 or zaitu Zu lagun.
 Asarrea besterik
 ez bait-dabil iñun,
 lagun zaiguzu, Ama,
 pakea dezagun.

Naigabedunen...

Gerratean etsaiak
 ezpata zorrotza!
 —gogoratzeaz utsik
 lertu lei biotza—
 gorrotz jaurti dizu
 zartada bikoitza...
 iru baño len bera
 lurrean ill-otza.

Naigabedunen...

Mariñelen lagun bein
 izanik bait-zera,
 —ekaitzaren mendetik
 bosteun bat atera—...
 Bizitz ontan gu ere
 mariñelak gera;
 iltzean sar gaitzazu
 zeruko kaiera.

Naigabedunen...

1938—«Pozaren Amaren»
 egunean.—Agorra—8.